

Berdintasuna... Zertarako?

Emakume eta Gizonezkoen arteko berdintasuna oraindik ere helburu bat dugu gizarte mailan. Hala izanik, badaude gazteok konkretuki bizi ditugun desberdintasunak eta diskriminazioak. Gauzak horrela, EGKtik Gazteon ahotsa helarazi nahi dugu administrazioetara hiru ekimen hauen bitartez.

Zeintzuk dira gazte beharrak berdintasun ikuspegitik? Eta zeintzuk gure eskaera eta proposamenak? Anima zaitetz eta parte har ezazu!!

EKITALDIAK:

Gasteiz: Azaroaren 8a.

Donostia: Azaroaren 21a.

Bilbo: Azaroaren 30a eta Abenduaren 1a.

IZENA EMATEKO EDOTA INFORMAZIO

GEHIAGO ESKATZEKO:

berdintasuna@egk.org

944.43.61.43




Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Berdintasuna... Zertarako?



ETA, ZUK... ZERTARAKO?

-Non:

Gasteizko EHUko Kanpusean

-Noiz: Azaroaren 8a

(egunean zehar,
ekimen ibiltaria)

Berdintasun arloan badaude ezagunak egiten zaizkigun erronka batzuk: lan-munduko berdintasuna, indarkeria desagertaraztea, genero rolen eraldaketa... Baina, zeintzuk dira gazteon egunerokotasun eta bizitzan gehien igartzen ditugun erronkak?

Azaroaren 8an EHUko kanpusean barrena ibiliko gara gazteok ditugun berdintasun arloko kezka, iradokizun, ideia eta proposamenak jasotzen. Gure helburua **"Beharren ideia zaparrada"** egitea da. Berdintasunari dagokion erronkaren bat baduzu, zatoz eta parteka ezazu!

Ekimena zuzenean EGK-ren twitter bitartez (@GazteKontseilua) jarraitu ahal izango da **#ZukZertarako** traolarekin, momentu bakoitzean ideiak jasotzen non gauden jakin ezazuen.



EMAKUMEEN HIRIA

-Non: Donostian

(ekintzak hasiera eta bukaera
izango du EGK-ko egoitzan
Andia kalea, 11, 1. Solairua)

-Noiz: Azaroaren 21ean,
arratsaldeko 16:30ean
(bi ordu eta erdiko iraupena)

Zein paper izan dugu emakumeok izan dugu emakumeok gure herrietako historian? Eta zein aintzatespen jaso izan dugu? Eta, egun, zein espazio dugu hirietan? Nora arte sartu da begirada morea hiri zein herrien diseinuan?

Galdera hauei erantzuteko **"Emakumeen Hiria"** antolatu dugu. Lehenik, iraganean eta honen aintzatespenean arreta ezartzeko EGK-ko egoitzatik abiatuko den tour bat burutuko da. Ostean, egungo hirien diseinuari buruzko eztabaida egingo da **proposamenak** lortze aldera. Bigarren eztabaida honetan eraso sexistek bereziki azaleratzen dituzten askatasun galera eta honetan hiriaren diseinuak izan dezakeen inpaktutik abiatuko gara.



"BERDINTASUNA... ZERTARAKO?" BELAUNADIEN ARTEKO TOPAKETA

-Non: Bilboko EGKren Egoitzan
(Autonomia kalea, 44, behea)

-Noiz: Azaroaren 30ean eta
abenduarien 1ean, arratsaldeko
17:30ean (bi orduko iraupeneko
saioak)

Gizartean zeharkakoak diren gaiak ezinbesteko dute **belaualdien arteko komunikazioaz** baliatzea garapenaren ildoak galdu ez dadin. **Berdintasuna zeharka** landu beharreko arlo bat da zalantzarik gabe eta aurten belaualdi gazteenei begira bi arazo-gune nagusi aurkitu dira: **emakumeek jasaten dituzten indarkeria matxistak** eta oraindik ere gizon gazteekin alderatuz dagoen **denbora pertsonalaren banaketa desberdina**.

Gai bakoitza saio batean landuko da eta hauetan belaualdi desberdinen arteko topaketa dugu helburu. Alegia, aurreko ekintzen kasuan ez bezala, **edozein adinetako emakume zein gizona** zabaltzen diegula partaidetzarako gonbita.

